

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abuztuaren 7a

91. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Parlamentuaren eskariz Esako lur-mugimenduen gaineko azterlan bat egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren ekonomia eta finantza arloko kudeaketaren kontrolerako batzordeak Nafarroako Gobernuari igorritako txostenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Alvia trenaren Tuterako geldialdiak kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, 2014an egin diren finantzaketa-operazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren ondasun publikoak errentan ematea edo saltzea ekartzeko kontratuen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, defizita betetzeari buruz Nafarroak ministerioari hileroko ematen dion informazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Enplegu Plana kudeatzen duen batzorde iraunkorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Iktus Unitatearen funtzionamenduari, tratamenduei eta ondorengo jarraipenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, urte honetarako Doikuntza Plan bat igortzeari buruz Espainiako Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak igorritako komunikazioari Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, baliabide publikoak egiaz behar dituzten pertsonengana eta familia-unitateengana heltzen direla bermatzeko helburua betetzearren Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko hartuko dituen neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak amiantoaren eraginpean egondako langileen osasuna zaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, La Caixa Fundazioak eta Nafarroako Gobernuak iragan maiatzaren 27an Tuteran sinatutako lankidetzaren hitzarmenak dakartzan aldaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, AHTaren obrak finantzatzeko hitzarmenaren ondorioz Estatuak Nafarroarekin daukan zorra geroratzeko xedez Sustapen Ministerioarekin sinatutako itunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

- Galdera, Lasaitasuna eta El Mirador de Yesa urbanizazioetako etxebizitzek bertan bizitzeko baldintzak berreskuratu ahal izanen dituzten zehazte aldera Sustapen Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Estatuari egindako ekarpen gisa martxoaren 31n 138.958.637,50 euro ordainduak izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, ikastetxeetan pedikulosiaren ondoriozko infekzioei aurrea hartzeko eta haiak kontrolatu eta saihesteko hartu diren eta hartu nahi diren neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak Nafarroako Gobernuari egindako erreklamazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2012ko apirilean emandako epaia betetzeari buruzkoa, zenbait errepide tarte konpontzeari dagokionez. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Europar Batasunak 2014-2020 aldirako emandako egiturazko funtsen exekuziorako oinarritzko proposamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, industria berrabiarazteko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, kronikoen estrategiarako bi milioi euro zer kontzeptutan gastatuko diren jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Parlamentuaren eskariz Esako lur-mugimenduen gaineko azterlan bat egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maite Esporrín Las Heras andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuaren eskariz Esako lur-mugimenduen gaineko azterlan bat egiteari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 5eko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Heras andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (8-14/PES-119) Esako urtegiaren inguruan gertatu diren lur-mugimenduak direla-eta azterlan eta ebaluazio bat egiteko eskariari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Parlamentuak, bi mila eta hamahiruko apirilaren hogeita bostean hartutako erabakiaren bitartez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari zein Nafarroako Gobernuari honakoa eskatu zien: «...azterlan eta ebaluazio bat egitea, independentzia eta zorrotasun teknikoa ziurtatuta, Esako urtegiaren inguruan gertatzen ari diren lur-mugimenduei buruz, horien arrazoiei buruz eta Nafarroan eta Aragoian ukitutako herrietako etxebizitzetan, azpiegiturretan eta lurretan gertatzen ari diren edo gerta litezkeen ondorio negatiboak buruz, bai eta inguruaren egonkortasuna ziurtatze aldera garatu beharreko konponbide teknikoak buruz ere». Horixe da galdera-egilearen intereseko gaia. Bada, azterlan hori egitea Estatuko Administrazio Orokorri dagokio, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez.

Nafarroako Gobernuak behar diren lankidetzeta eta koordinazio-harremanak dauzka Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin bakoitzaren eskumenak gauzatzearen esparruan, presa handitzeari dagokionez eta, oro har, Esako urtegiaren existentziari berez dagokion edo harekin lotuta dagoen jarduerari dagokionez.

Ondoren aipatzen dugun helbidean argitaratuta daude, 2013ko ekainetik, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren enkarguz egindako azterlan batzuk, horietako lau hilabete horretan izenpetuak –beraz, 2013ko martxoaren 21etik aurrerakoak, orduan hartu baitzuen Nafarroako Parlamentuak aipatutako erabakia–. Parlamentariak galderaren bidez erakutsi duen interesari erantzun diezaiokete txosten horiek.

www.chebro.es/contenido.visualizar.do?idContenido=34337&idMenu=4320.

Informazioan, honako dokumentuak sartzen dira:

– "Urtegiaren segurtasunari buruzko txostena" Ingenieria del Suelo, S.A. enpresari enkargatua. Bide, Ubide eta Portuetako ingeniari eta Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko katedradun Antonio Soriano Peñak izenpetuta dago eta 2013ko martxokoa da.

– "Esako presaren eskuin mazelaren analisi geomorfologikoa", Zaragozako Unibertsitateko Kanpoko Geodinamikako katedradun Francisco Gutiérrez Santolallak izenpetuta dago eta 2013ko ekainekoa da.

– "Esako Urtegiko itxierako eskuin mazelaren egonkortasun baldintzen ebaluazioa", Prospección y Geotecnia, S.L. enpresak eginga eta honakoek izenpetua: geologo eta ingeniari geologikoaren arloan master J. Ángel Rodríguez Franco jauna; geologo Esther Lobo Gómez andrea; eta Geologian doktore, ingeniari geologo eta Madrilgo Universidad Complutenseko Ingeniaritza Geologikoko

katedradun Luis González de Vallejo jauna. 2013ko ekainekoa da.

– "Esako urtegiaren eskuin mazelan eragiten duen ezegonkortasunaren mekanismorako eredu geologikoa eta identifikazioa", Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Lurraren Ingeniaritza, Kartografia eta Geofisika Sailak egin eta Lurraren Ingeniaritzako katedradun Jordi Corominas jaunak izenpetua. 2013ko ekainekoa da.

– "Esako urtegiko eskuin mazelaren egonkortasunari buruzko azterlana", TYPsAk egin eta honakoek izenpetu dutena: Zientzia Geologikoetan lizentziadun Álvaro Barrero Díaz jauna; ingeniari geologo Alexandre Plaza Cartal jauna; Zientzia Geologikoetako lizentziadun Patricia Bardavio Domínguez andrea; Bide, Ubide eta Portuetako ingeniari Miguel Troncoso Gómez jauna, eta Bide,

Ubide eta Portuetako ingeniari Pedro Ramírez Rodríguez jauna. 2013ko ekainekoa da.

Era berean, Nafarroako Gobernuak, 2013ko ekainaren hasieratik, Esako urtegiko eskuin mazelaren lerraduren bilakaerari buruzko informazioa argitaratzen du, honako helbidean:

http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Presidencia+justicia+e+interior/Publicaciones/Publicaciones+propias/Interior/Yesa.htm

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 194. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2014ko ekainaren 11n

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Nafarroako Kutzaren ekonomia eta finantza arloko kudeaketaren kontrolerako batzordeak Nafarroako Gobernuari igorritako txostenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Kutzaren ekonomia eta finantza arloko kudeaketaren kontrolerako batzordeak Nafarroako Gobernuari igorritako txostenei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Kutzako Kontrol Batzordeak Nafarroako Gobernuari igorritako txostenei buruz (8-14/PES-00111). Galdera hori 2014ko maiatzaren 8ko 1424 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Parlamentari jaunak adierazi bezala, Nafarroako Gobernuak apirilaren 30ean igorritako erantzuna eskatutako dokumentazio guztiari buruzkoa da.

Nafarroako Kutzaren Kontrol Batzordeak 2004tik 2010era egin eta Nafarroako Gobernuari igorri zizkion txostenak erantsi dira.

2002ko eta 2003ko txostenik ez dago, zeren eta orduan indarrean zeuden estatutuek (2000ko urtarrilaren 17koak dira) 33.2 artikuluan ezartzen baitzuten Kontrol Batzordeak, entitatearen kudeaketa finantzarioari dagokionez, "kasua bada, txosten bat eginen duela...". Horrenbestez, aukerako ahalmena zen, eta Kontrol Batzordeak ez zuen txostenik egin.

2011n ere ez zen txostenik egin, zeren eta 2010eko maiatzaren 17ko Estatutuek, 60.2 artikuluan, honakoak ezartzen baitzituzten Kontrol Batzordearen eskumen gisa: "entitatearen ekonomia- eta finantza-kudeaketa aztertzea... horiei buruzko urteko txosten bat eginez...". 2011ko kontuei dagokienez, Kontrol Batzordeak ez zuen txosten hori egin. Izan ere, 2011n Kutzak ez zuen zuzeneko finantza-jarduerarik egin, zeren eta 2011n aktibo guztiak Banca Cívica eskutik utzi baitzituen. Urte horretako xede sozial bakarra

gizarte-lana kudeatzea izan zen (horrelaxe jaso zen 2012ko estatutu berrietan, zeinak Kutxaren errealitate berriari egokitzeko idatzi baitziren).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean 2014ko ekainaren 10ean.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Alvia trenaren Tuterako geldialdiak kentzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maite Esporrín Las Heras andreak egindako galderaren erantzuna, Alvia trenaren Tuterako geldialdiak kentzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 23ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Maite Esporrín Las Heras andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Alvia trenak Tuteran egiten dituen geldialdietako batzuk kentzeko ustezko aurreikuspen bati buruz jaso omen

dituen albisteak direla eta (PES-00113). Hauxe erantzun dio Sustapen Departamentuak:

Lehenbizi, adierazi beharra dago Tuteran geldialdia duten Alvia trenak Madrilen eta Bartzelonan jatorria edo jomuga duten distantzia luzeko zerbitzuetako ibilaldiei dagozkiela. Haien titulartasuna Renfe-Operadora (aurrerantzean, Renfe) enpresari dagokio. Adierazi beharra dago, era berean, Renfek ematen dituen zerbitzuak ez daudela Sustapen Ministerioak ezarritako zerbitzu publikoaren betebeharraren menpean; hau da, ez daude lotuta ministerioaren eta operadorearen artean kontratubaldintza batzuk ezartzearen menpean; horrenbestez, konpainiak ez du zerbitzu hori ematearen truke kalte-ordain ekonomikorik jasotzen.

Bigarrenik, aipatu beharra dago ezen, Renfek emandako datuen arabera, honakoak direla Alvia zerbitzuek Tuterako geltokian dauzkaten geldialdiak:

Jatorria	Jomuga	Orduetegiak (Tutera)
Tutera	Bartzelona	7.28; 10.27; 11.24; 15.50; 18.23; 19.03
Tutera	Madril	7:37; 8:38; 16:35; 19:30; 20:35
Bartzelona	Tutera	7:30; 9:30; 12:10; 15:10; 18:40
Madril	Tutera	7:35; 15:05; 17:35; 18:35; 19:35

Azkenik, adierazi beharra dago ezen, Renferi kasuko kontsulta egin ondoren, honakoa eman dela aditzera:

a. Une hauetan ez da aldaketarik aurreikusi Tuteran geldialdia duten eta Bartzelonatik zein Madrildik datozen Alvia zerbitzuetarako.

b. Arestian adierazitako ordutegiei dagozkien ohiko zerbitzuak programatuta daude bai negurako, bai udarako.

c. Tren horietatik gehienetarako txartelak erosi ahal dira Renferen honako webgunearen bidez: www.renfe.com

Galderaren bigarren atalean galdetzen da egi-azkotzat jotzen diren egitate batzuk direla-eta Nafarroako Gobernuak egin duen kudeaketari buruz, hau da, Alvia trenen Tuterako geldialdiak kentzeari buruz. Renfek, ordea, ez du halakorik konfirmatu.

Azkenik, gogorarazi beharra dago ez dagoela ez kontratu- ez hitzarmen-harremanik Renferen

eta foru erkidegoaren artean distantzia luzeko zerbitzuak ezarri, mantendu edo finkatzeko, Nafarroako geltokietan geldialdia duten distantzia luzeko zerbitzuei dagokienez.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, 2014an egin diren finantzaketa-operazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, 2014an egin diren finantzaketa-operazioei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 23ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2014an egindako finantza-operazioen interesari eta amortizazio-epari buruz (8-14/PES-00112). Galdera hori 2014ko maiatzaren 14ko 1478 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Honakoak dira gaur arte 2014an egin diren finantzaketa-eragiketak:

ISIN	IZENA	Igorpen data	Amortizazio data	Kupoia	Zenbateko nominala	Ordaindu beharreko zenbatekoa	Ordaintze ko data	OF	TIR
	O-21	2014-02-14	2024-02-14	% 3,950	80.800.000	80.589.920,00	14-02-14	2014/26, otsailaren 4a	% 3,982
	O-21	2014-02-14	2024-02-14	% 3,950	8.000.000	7.979.200,00	14-02-14	2014/26, otsailaren 4a	% 3,982
ES0001353368	O-21	2014-02-14	2024-02-14	% 3,950	88.800.000	88.569.120,00			
	O-22	2014-02-14	2022-02-14	% 3,587	22.000.000	21.954.900,00	14-02-14	2014/25, otsailaren 2014-02-14a	% 3,617
	O-22	2014-02-14	2022-02-14	% 3,587	73.000.000	72.850.350,00	14-02-14	2014/25, otsailaren 4a	% 3,617
	O-22	2014-02-14	2022-02-14	% 3,587	31.000.000	30.936.450,00	14-02-14	2014/25, otsailaren 4a	% 3,617
	O-22	2014-02-14	2022-02-14	% 3,587	14.000.000	13.971.300,00	14-02-14	2014/25, otsailaren 4a	% 3,617
ES0001353376	O-22	2014-02-14	2022-02-14	% 3,587	140.000.000	139.713.000,00	14-02-14	2014/25, otsailaren 4a	
ZORRA, GUZTIRA					228.800.000	228.282.120			
MALEGUA		2014-02-14	2024-02-14	% 3,862	128.000.000	128.000.000,00	14-02-14	2014/24, otsailaren 4a	
GUZTIRA					356.800.000	356.282.120,00			

Zor-jaulkipenaren batez besteko interes tasak honakoak dira:

	ZENBA-TEKOA*	EPEA	+ ALT XORRA	Interes TASA	BATEZ BESTEKO EPEA	+ ALT XORRA	BATEZ BESTEKO INTERESA
	128,0	10	15	3,862	1280	1920,0	494,3
	80,8	10	27	3,982	808	2181,6	321,7
	8,0	10	27	3,982	80	216,0	31,9
	95,0	8	28	3,617	760	2660,0	343,6
	31,0	8	28	3,617	248	868,0	112,1
	14,0	8	28	3,617	112	392,0	50,6
GUZTIRA	356,8	54	153	22,677	3288	8237,6	1354,3
					9,2	23,1	3,8

*Euroak, milioitan

PDF agiri batean, finantza-entitate batekiko maileguaren baldintzak zehazten dituen foru agindua (24/2014 Foru Agindua) eta Nafarroako Gobernuaren zor-jaulkipena zehazten eta arautzen duten foru aginduak (25/2014 Foru Agindua eta 26/2014 Foru Agindua) gehitu ditugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren ondasun publikoak errentan ematea edo saltzea ekartzen duten kontratuen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Koldo Amezketa Díaz jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren ondasun publikoak errentan ematea edo saltzea ekartzen duten kontratuen kopuruari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 16ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Amezketa Díaz jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak edo bere edozein sozietate publikok

2010etik aitzina Nafarroaren ondarearen zati diren ondasun publikoak errentan eman edo saltzea ekarri duten kontratuei buruz (8-14/PES-00109). Galdera maiatzaren 6ko 1389 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hau erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko Ondare Zerbitzuari dagokionez, Nafarroaren ondareko ondasun publikoak saltzeko aipatutako epean guztira sinatu diren kontratuak idazki honen eranskinean ageri dira. Honakoak dira, hain zuzen:

URTEA	KOPURUA
2010	29
2011	9
2012	45
2013	2
2014	4

Nafarroako ondareko ondasun publikoak errentan emateko kontratuei dagokienez, 6 kontratu izenpetu dira erreferentziako epean. Honakoak dira, hain zuzen:

INBENTARIO ZK.	IZENA	UDALERRIA	KONTRATUA REN DATA
2778	Buñuelgo industrialdeko orubea, I eta F-3 lurzatietan, 14.184 m2-koa	Buñuel	2010-07-01
2783	Agoizko industrialdeko nabea (1. poligonoko 642 lurzattia)	Agoitz	2011-09-13
3408-01	Irunberriko mintegi orubea, 74.072,73 m2-koa (4. poligonoko 439. lurzattia)	Irunberri	2012-04-20
3846	Iruñeko Nafarroako Gorteak kaleko 2. zenbakiko eraikina	Iruña	2012-05-30
2033	Leitzako San Miguel kaleko 38. zk.ko egoitza – Maxurrenea	Leitza	2013-10-01
3408-01	Irunberriko mintegi orubea, 56.267,15 m2-koa (4. poligonoko 524. lurzattia)	Irunberri	2013-12-31

Inongo kontratuk ez du konfidentzialtasun klausularik.

Sozietate publikoei dagokienez, aipatu beharra dago ezen, galderan adierazitako hitzez hitzeko zentzuari erreparatuta, sozietate horiek ez dutela inongo kontraturik egin Nafarroako ondarearen ondasun publikoak saltzea edo errentan ematea ekarri duenik.

Aurrekoa alde batera utzita, soilik higiezinak dagokienez eta Nafarroako Gobernuak emandako datuekin bat, entitateek eman dizkiguten datuei jarraituz, honako enpresa publikoek ez dute ondasun higiezinak alokatzeko edo saltzeko kontraturik egin hirugarrenekin 2010, 2011, 2012 eta 2013ko

ekitaldietan eta 2014ko ekitaldiko apirilaren 30era arte:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.

Navarra de Servicios y Tecnologías, SA.

Gestión Ambiental de Navarra, S.A.

Navarra de Infraestructuras Locales, S.A.

Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, S.A.

Ondoren adierazitako enpresei dagokienez, honakoak dira 2010, 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietan eta 2014ko ekitaldiko apirilaren 30era arte ondasun higiezinak alokatu edo saltzeari buruzko datuak:

Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

Higiezin salmenta-kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Etxebizitzak	Etxabeak/garajeak/ Bulegoak/trasteleku ak	Nabeak	Lurzatiak	Konfidentzialtasun klausula
2010	919	828	85	0	6	Ez
2011	596	536	47	0	13	Ez
2012	75	57	3	0	15	Ez
2013	26	20	6	0	0	Ez
2014	14	13	1	0	0	Ez

Ondasun higiezinak errentan emateko kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Etxebizitzak	Etxabeak/garajeak/ Bulegoak	Nabeak	Lurzatiak	Konfidentzialtasun klausula
2010	179	179	0	0	0	Ez
2011	186	182	3	0	1	Ez
2012	233	230	3	0	0	Ez
2013	212	200	12	0	0	Ez
2014	48	44	4	0	0	Ez

Agencia Navarra del Transporte y La Logística, S.A.

Higiezin salmenta-kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Etxabeak/garajeak/ Bulegoak/trasteleku ak	Lurzatiak	Konfidentzialtasun klausula
2010	2	0	2	Ez
2011	1	0	1	Ez
2012	2	0	2	Ez
2013	1	0	1	Ez
2014	0			

Ondasun higiezinak errentan emateko kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Etxabeak/garajeak/ Bulegoak/trasteleku ak	Lurzatiak	Konfidentzialtasun klausula
2010	3	3	0	Ez
2011	0			
2012	0			
2013	0			
2014	0			

Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.L.

Higiezin salmenta-kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Etxabeak/garajeak/ Bulegoak/trastelekuak	Nabeak	Lurzatiak	Konfidentzialtasun klausula
2010	3	0	0	3	Ez
2011	4	0	2	2	Ez
2012	2	0	1	1	Ez
2013	0				
2014	3	0	1	2	Ez

Ondasun higiezinak errentan emateko kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Etxabeak/garajeak/ Bulegoak/trastelekuak	Nabeak	Lurzatiak	Konfidentzialtasun klausula
2010	0				
2011	10	7	2	1	Ez
2012	17	12	5	0	Ez
2013	7	6	1	0	Ez
2014	5	3	1	1	Ez

Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A.

Higiezin salmenta-kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Etxabeak/garajeak/ Bulegoak/trastelekuak	Konfidentzialtasun klausula
2010	0		
2011	0		
2012	0		
2013	1	1	Ez
2014	0		

Ondasun higiezinak errentan emateko kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA
2010	0
2011	0
2012	0
2013	0
2014	0

Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, S.L.

Higiezinen salmenta-kontratuen guttizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Nabeak	Konfidentzialtasun klausula
2010	0	0	
2011	0	0	
2012	1	1	Ez
2013	0	0	
2014	0	0	

Ondasun higiezinak errentan emateko kontratuen guttizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Bestelakoak	Konfidentzialtasun klausula
2010	0	0	
2011	0	0	
2012	0	0	
2013	0	0	
2014	1	1	Bai

Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, S.L.

Higiezinen salmenta-kontratuen guttizko kopurua

URTEA	KOPURUA
2010	0
2011	0
2012	0
2013	0
2014	0

Ondasun higiezinak errentan emateko kontratuen guttizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Mintegirako nabea/bulegoa	Eraikinaren alokairua	Konfidentzialtasun klausula
2010	8	8	0	Ez
2011	8	7	1	Ez
2012	12	12	0	Ez
2013	11	11	0	Ez
2014	2	2	0	Ez

Trabajos Catastrales, S.A.

Higiezin salmenta-kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Eraikina/bulegoa	Konfidentzialtasun klausula
2010	0		
2011	0		
2012	4	4	Ez
2013	0		
2014	0		

Ondasun higiezinak errentan emateko kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Eraikina/bulegoa	Konfidentzialtasun klausula
2010	2	2	Ez
2011	0		
2012	0		
2013	0		
2014	0		

Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L.

Higiezin salmenta-kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Eraikina/bulegoa	Konfidentzialtasun klausula
2010	0		
2011	0		
2012	0		
2013	6	6	Ez
2014	0		

Ondasun higiezinak errentan emateko kontratuen guztizko kopurua

URTEA	KOPURUA	Nabeak	Konfidentzialtasun klausula
2010	5	5	Ez
2011	1	1	Ez
2012	1	1	Ez
2013	0		
2014	0		

Aurreko datuetatik erator daitekeen bezala, adierazitako kontratuak –aparteko izaera duen bat kenduta– ez dute konfidentziasuneko klausula zehatzik, zeren eta aipatutako enpresen ohiko eragiketei baitagozkie. Hala eta guztiz ere, eta konfidentziasunari dagokionez, honakoa nabarmendu beharra dago:

Oro har, enpresa publikoetan, hirugarren batekiko informazio-trukea dakarren edozein jarduera edo negoziotan (estrategia, negozioak, bezeroen datuak, hornitzaileak..) tentuz jokatzeko da konfidentziasunaren konpromisoa egon dadin.

Hartara:

– Zerbitzuen lizitazio publikoei dagokienez, lizitazioetatik asko arautzeko baldintzetan konfidentziasun-klausulak jasotzen dira.

– Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Legearen ezarritako atalasetatik behera egon eta daukaten zenbatekoa dela-eta lizitazio bidez izapidetzen ez diren zerbitzuen kontratazioetan, konfidentziasun-agiri bat sinatu ohi da hornitzaile bakoitzarekin.

– Batzuetan, beste enpresa batzuekiko negoziatzean, baldin eta agiriren bat aurkeztu behar bada etorkizuneko negoziak direla-eta gerta litekeen

interesarengatik, haiek egin aurretik, konfidentziasun agiriak sinatzen dira.

– Beste eragile ekonomiko batzuen baterako parte-hartzearen kasuan (enpresen aldi baterako batasuna), gai horri buruzko zenbait klausula sartzen dira.

– Eragiketa horiek alde batera utzita, beste jarduketara batzuk badaude, merkataritzaren esparruan zein lanaren esparruan (esate baterako, lan kontratu baten kasuan), zeinetan, beste agiri batzuekin batera, konfidentziasun klausulak sinatzen baitira.

Halaber, eta legedia indardunaren aplikazioaren ondorioz, enpresa publikoek aurrera eramaten dituzten kontratu guztiak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organiko indardunaren menpean daude.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean 2014ko ekainaren 12an.

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguaren kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

ERANSKINA - NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREN ONDASUNEN SALMENTA (2010-01-01etik 2014-04-30era)

Izena	Multzoa	Mota	Ondarea, Berariazkoa, Udaleria	Herria	Ireera data
3294	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Berrizarko Olanondoa kaleko 2.2. A	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Berrizor	12/01/2010
3509	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Iruñeko Marcelo Celayeta etorbideko 39. zenbakiko esk. D-3509	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Iruña	04/02/2010
3575	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Uharteko Ugarrindia kaleko 17. zk.ko 3. A	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Uhartea	08/02/2010
3541	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Iruñeko Urzainqui kaleko 5. zk.ko 1. B	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Iruña	10/02/2010
3341	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Berrizarko Odol-emaleen plaza 7. zk.ko 2. A	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Berrizor	24/02/2010
3259	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Buriatiko Francisco Ardanaz plaza, 6.zk.ko 1. D	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Buriata	26/02/2010
3200	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Iruñeko Vicenta María kaleko 22. zk.ko B behea.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Iruña	18/03/2010
3490	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Berrizarko Odol-emaleen plaza 6. zk.ko 4. A	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Berrizor	18/03/2010
3222	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Berrizarko Foruen Pasealeku 1. zk.ko 4. C	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Berrizor	30/03/2010
3119	Vianako La Albergueria Industrialdeko 3.3 lurzaila	INDUSTRIARRAK OORUBEA	Exxebizitza babestua	Viana	08/04/2010
3491	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Berrizarko Odol-emaleen plaza 6. zk.ko 4. B	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Berrizor	09/05/2010
3353	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Antsoaingo Ezkaba kaleko 3. zk.ko 2. R	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Antsoain	19/05/2010
3668	Abizuko 7.2 exekuzio unitateko 1, 928 m ² -ko lurzaila (1. pol./388. lurz./sa 1/uu 1)	ORUBEA	Exxebizitza babestua	Abizu	28/06/2010
1832	NAFARROAKO OINARRIZKO SAREKOA EZ DEN SILOA, LARRAGAN	ZEREALETARA KO SILOA	LARRAGA	Larraga	01/07/2010
3677	Corellako 5. poligonoko 1167. lurzaila, 222 m ² -koa	UREZTALURRA	CORELLA	Corella	30/09/2010
3291	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Berrizarko Olanondoa kaleko 8 zk.ko 2. G	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Berrizor	31/12/2010
3302	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Tuterako Argentinako etorbideko 3. zk.ko At B.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Tutera	31/12/2010
3309	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Iruñeko Maiteinduen Parkea 19. zk.ko 4. C.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Iruña	31/12/2010
3312	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Iruñeko Ortiz de Landáuzuri Plaza 12. zk.ko 6. B.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Iruña	31/12/2010
3345	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Sarriguren Urederrako Iurburua kaleko 8. zk.ko A behea.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Sarriguren	31/12/2010
3352	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Berrizarko Odol-emaleen Plaza 5. zk.ko 3. D.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Berrizor	31/12/2010
3497	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Orkoiengo Ratael Alberti kaleko 24. zk.ko 1. B.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Orkoien	31/12/2010
3498	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Iruñeko José Alonso doktorea kaleko 2k.ko 1. B.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Iruña	31/12/2010
3510	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Iruñeko Rodrigo Ximenez de Rada kaleko 8. zk.ko 1. B. 3510	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Iruña	31/12/2010
3512	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Iruñeko Eransusko Jaurreria kaleko 15. zk.ko B behea.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Iruña	31/12/2010
3528	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Berrizarko Etxaburua kaleko 1 zk.ko eskumeko eskalerako 4. A	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Berrizor	31/12/2010
3538	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Berrizarko Olanondoa kaleko 2 zk.ko 1. A	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Berrizor	31/12/2010
3539	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Noaingo Agoltz zeharkaleko 1. zk.ko 1. B	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Noain (hiriburu)	31/12/2010
3540	Exxebizitza + G. lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Atarrabiako Andressar kaleko 30. zk.ko 1. B.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Atarrabia	31/12/2010
3494	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Orkoiengo Iperegi kaleko 1. bis zk.ko 2. E.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Orkoien	28/01/2011
3798	Doneztebeko 1. poligonoko 50. lurzaila, 4.603,42 m ² -koa	FINKA	DONEZTEBE	Doneztebe	24/02/2011
3646	Exxebizitza + G + T, lehenetasuneko eskurapenaren bidez. Iruñeko Ortiz de Landáuzuri doktorea kaleko 16. zk.ko 2. B.	ETXEBIZITZA	Exxebizitza babestua	Iruña	24/02/2011
3786	Lizarako UE.1 exekuzio unitatearen birzailaketa proiektuko 6. 1-2 lurzaitaren % 7,68, 15.177 m ² -koa	ORUBEA	LIZARRA	Lizarra	19/05/2011
3787	Lizarako UE.1 exekuzio unitatearen birzailaketa proiektuko 6.3 lurzaitaren % 2,4629, 4.773 m ² -koa	ORUBEA	LIZARRA	Lizarra	19/05/2011
3780	Oliza Zendeako Izkueko FR 12268 etxebizitzaren (beheko solairua+1) herena, 212 m ² -koa.	ETXEBIZITZA	OLITZA ZENDEA	Izkue	14/06/2011
3679	Mutiloaibeitiko "Entremutillas" sektoreko P.P.aren 14. lurzaila, 3345 m ² -koa.	HIRI ORUBEA BIDESARI-ETXEA	ARANGUREN	Mutiloaibeiti (hiriburu)	16/08/2011
3469 - 02	ARAIZKO ATALLUKO BIDESARI-ETXEA	ORUBEA	ARAITZ	Atallu	02/12/2011
3469 - 01	ARAIZKO ATALLUKO BIDESARI-ETXEAREN ONDOKO ORUBEA	ORUBEA	ARAITZ	Atallu	02/12/2011
3836	ARZ-6 birzailaketa XIX/ZN-10 sektoreko P.1.1. lurzaitaren % 9,75	ORUBEA	URDAZUBI	Iruña	11/05/2012
3813	NA-121-B errepideko 72.480 k.p.rik 72.730 k.p.ira bitarteko tartea -Mendabla-	ERREPIDEA	URDAZUBI	Urdaubi	15/10/2012
3476 - 04	IRUÑEKO JAUREGIAREN ALDAPAKO 08-3ko ETXEBIZITZA	ETXEBIZITZA	IRUÑA	Iruña	26/10/2012
3476 - 03	IRUÑEKO JAUREGIAREN ALDAPAKO 08-2ko ETXEBIZITZA	ETXEBIZITZA	IRUÑA	Iruña	09/11/2012
3887	Caparroso-Azkoien NA-128 errepidea hobetzearen gaindikina den 185,53 m ² -ko linka	UREZTALURRA	AZKOIEN	Azkoien	09/11/2012
3888	"Entremutillas" birzailaketa proiektuko P-12ko % 1,25; P-13ko % 4,66; P-14ko 55,08, eta P-31ko % 18,95.	ORUBEA	ARANGUREN	Mutiloaibeiti (hiriburu)	19/11/2012
3476 - 05	IRUÑEKO JAUREGIAREN ALDAPAKO 08-4ko ETXEBIZITZA	ETXEBIZITZA	IRUÑA	Iruña	04/12/2012
429	FORUZAINGOAREN LIZARRAKO BULEGOAK. Lehenago Abeltzaintza Zerbitzu	BULEGOAK	LIZARRA	Lizarra	21/12/2012
2566	IRUÑEKO SANDUZELAI ETORBIDEKO 75 ZK-KO MERKATARITZARAKO ETXABEA	ETXABEA	IRUÑA	Iruña	21/12/2012

Izena	Multzoa	Mota	Ondarea, Berariazkoa.	Udalerrria	Herria	Ireera data
3430 - 01 IRUÑEKO ESTAFETA KALEKO 01-2 ETXEBIZITZA	Erakina	ETXEBIZITZA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3430 - 02 IRUÑEKO ESTAFETA KALEKO 01-1 ETXEBIZITZA	Erakina	ETXEBIZITZA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3430 - 03 IRUÑEKO ESTAFETA KALEKO 01-3 ETXEBIZITZA	Erakina	ETXEBIZITZA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3430 - 04 IRUÑEKO ESTAFETA KALEKO 01-4 ETXEBIZITZA	Erakina	ETXEBIZITZA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3430 - 05 IRUÑEKO ESTAFETA KALEKO 01-5 ETXEBIZITZA	Erakina	ETXEBIZITZA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3430 - 06 IRUÑEKO ESTAFETA KALEKO 01-B, EZK-KO A ETXABEA	Erakina	ETXABEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3430 - 07 IRUÑEKO ESTAFETA KALEKO 01-B, ESK-KO B ETXABEA	Erakina	ETXABEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3430 - 08 IRUÑEKO ESTAFETA KALEKO 01 ZK.KO TELATUPEKO TRASTELEKUA	Erakina	TRASTELEKUA ETXABEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
1997 IRUÑEKO SAN FRANTZISKOK PLAZAKO BEHE SOLAIRUA-SOTOA DUEN ETXABEA. Sarrera Hilarion Eslava kaleko 1. z.k.tik dauka.	Erakina	BEHEKO SOLAIRUA- ETXABEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
1180 IRUÑEKO LIZARRA KALEKO 12 ZK.KO BULEGOAK (Antzinako Garrato Bulegoa)	Erakina	BULEGOAK		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3429 - 05 IRUÑEKO KONPAINIA KALEKO 03-B ZK.KO ETXABEA	Erakina	ETXABEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3429 - 03 IRUÑEKO KONPAINIA KALEKO 03-3 ETXEBIZITZA	Erakina	ETXEBIZITZA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3429 - 04 IRUÑEKO KONPAINIA KALEKO 03-4 ETXEBIZITZA	Erakina	ETXEBIZITZA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
2377 IRUÑEKO DONIBANE AUZOKO ETXABEEN MULTZOKO 3 ETXABEETATIK BAT. 15. ETXABEA	Erakina	ETXABEA		BARAÑAIN	Barañain	21/12/2012
207 BARAÑAINGO EZKIEN PLAZAKO 04 ZK.KO 14. BKO ETXEBIZITZA	Erakina	ETXEBIZITZA		LIZARRA	Lizarra	21/12/2012
1509 FOSHEZ Sortzez Garbiaren pasaalekua 35, 1. B. LIZARRA	Erakina	ETXEBIZITZA		LIZARRA	Lizarra	21/12/2012
1510 FOSHEZ SORTZEZ GARBIAREN PASEALEKUA 35, 1. C. LIZARRA	Erakina	ETXEBIZITZA		LIZARRA	Lizarra	21/12/2012
3678 Multiloagotiko "Entremutivas" sektoreko Plan Partzialaren P18 lurtzatia, 1210 m ² -koa.	Lursailak	ORUBEA		ARANGUREN	Multiloagoti (hriburua)	21/12/2012
3680 Multiloagotiko "Entremutivas" sektoreko P.P.aren P31 lurtzatiaren % 24,52, 2660 m ² -koa.	Lursailak	ORUBEA		ARANGUREN	Multiloagoti (hriburua)	21/12/2012
3681 Multiloagotiko "Entremutivas" sektoreko P.P.aren P32 lurtzatiaren % 32,24, 2660 m ² -koa.	Lursailak	ORUBEA		ARANGUREN	Multiloagoti (hriburua)	21/12/2012
3271 Lezkairuko L45.5 lurtzatiaren % 100, birzaitketa bidez, eta % 10,96, permuta bidez	Lursailak	ORUBEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3272 Birzaitketa proiektuaren emaitza den L45.6 lurtzatiaren % 48,01, Lezkairun	Lursailak	ORUBEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3273 Birzaitketa proiektuaren emaitza den L45.7 lurtzatiaren % 66,64 (lehen % 100), Lezkairun	Lursailak	ORUBEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3274 Birzaitketa proiektuaren emaitza den L46.6 lurtzatiaren % 36,63, Lezkairun	Lursailak	ORUBEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3275 Lezkairuko L10.4 lurtzatiaren % 56,57, birzaitketa bidez, eta % 30,17 permuta bidez	Lursailak	ORUBEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3817 Cordovillako Ordokiko udalez gaindikio plan sektorialeko AR-01 birzaitketa proiektuko P31.2 lurtzatiaren % 51,0767	Lursailak	ORUBEA		GALAR	Cordovilla	21/12/2012
3818 Cordovillako Ordokiko udalez gaindikio plan sektorialeko AR-01 birzaitketa proiektuko PT.7aren % 17,5163	Lursailak	ORUBEA		GALAR	Cordovilla	21/12/2012
3824 Mugartea sektoreko birzaitketa proiektuko P1.3 lurtzatiaren % 42,83	Lursailak	ORUBEA		ARANGUREN	Multiloagoti	21/12/2012
3853 Agoizko UE-1 birzaitketa proiektuko P1 lurtzatiaren % 100, 556,3 m ² dira	Lursailak	ORUBEA		AGOITZ	Agoitz	21/12/2012
3854 Agoizko UE-1 birzaitketa proiektuko P8 lurtzatiaren % 82,7, 175,7 m ² dira	Lursailak	ORUBEA		AGOITZ	Agoitz	21/12/2012
3855 Agoizko UE-1 birzaitketa proiektuko P9 lurtzatiaren % 82,7, 175,7 m ² dira	Lursailak	ORUBEA		AGOITZ	Agoitz	21/12/2012
2975 OLLOKIKO UE1-ARTEKO 3-1 LURZATIAREN % 22,6876	Lursailak	ORUBEA		ESTERIBAR	Oloki	21/12/2012
2967 UHARTEKO ARETA 2 BIRZAITKETA PROIEKTUKO 5. LURZATIA	Lursailak	ORUBEA		UHARTE	Uharte	21/12/2012
3868 ARS1 banaketa eremuko V/S-1 sektorearen birzaitketa proiektuko 1-B lurtzatiaren % 39,26	Lursailak	ORUBEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3869 ARS1 banaketa eremuko V/S-1 sektorearen birzaitketa proiektuko 1-F lurtzatiaren % 19,26	Lursailak	ORUBEA		IRUÑA	Iruña	21/12/2012
3426 - 09 GALAR ZENDEAKO CORDOVILLAKO ANTZINAKO SUPER-SER LANTOKIA. Nabean eta eraikinen 20.048 m ² . FR 11934	Erakina	INDUSTRIA-NABEA		GALAR	Cordovilla	21/12/2012
3898 Irun-Gipuzkoa N-121-A antzinako errepledeko Puntxasko bihurtuaren dagoen 1145,05 m ² -ko lursaila	Lursailak	ERREPIDEA		GIPUZKOA*		29/01/2013
3889 Nafarroako Foru Komunitatearen 2139 m ² -ko lurtzatia (Uxueko 9. poligonoko 398 lurtzatia) (Ubidez kanpoko)	Lursailak	FINKA		UXUE	Uxue	22/03/2013
2177 LESAKAKO Bitriña kaleko 17. z.k-ko ETXEBIZITZA ETA BARATZEA. ETXEBIZITZA HUTSA	Lursailak	ETXEBIZITZA		LESACA	Lesaka	16/01/2014
3919 TUTERAKO MONTES DEL CIERZO I. POLIGONOA. B4-2 LURZATIKO 5. eranskina, 25.000 m ² -koa.	Lursailak	INDUSTRIARAKO ORUBEA		TUTERA	Tutera	13/02/2014
2269 NEKAZARITZA GANBERA PROIBINTZIALAREN BILTEGIA -AZAGRA	Erakina	BILTEGIA		AZAGRA	Azagra	18/03/2014
2692 MADRILGO GOYA KALEKO 48. ZK.KO 1. SOLAIRUKO BULEGOA. NAFARROAKO GOBERNUAREN ORDEZKARITZA	Erakina	BULEGOAK		MADRIL*	MADRIL	11/04/2014

Galdera, defizita betetzeari buruz Nafarroak ministerioari hilero ematen dion informazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, defizita betetzeari buruz Nafarroak ministerioari hilero ematen dion informazioari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 30eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Espainiako

ministerioari 2012an, 2013an eta 2014an hilero emandako dokumentazioari buruz (8-14/PES-00115). Galdera hori 2014ko maiatzaren 20ko 1554 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak erantsitako euskarrian igortzen dio aipatutako informazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko ekainaren 20an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

Galdera, Enplegu Plana kudeatzen duen batzorde iraunkorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Enplegu Plana kudeatzen duen batzorde iraunkorrari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 30eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ordezkari handiena duten sindikatuak eta enpresa-erakundeek Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren zuzendaritzan eta kudeaketan duten parte-hartzeari buruz (8-14/PES-00116). Galdera hori 2014ko maiatzaren 22ko 1586 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gober-

nuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

PES 82 galderaren erantzuna dela-eta egindako interpretazioari dagokionez, esan behar da enplegurako lanbide prestakuntzarako diru-laguntzak arautzen dituen araudia Estatukoa dela. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, berriz, araudi horri egokitutako diru-laguntzen deialdia onesten du. Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Batzorde Iraunkorraren eta Gobernu Kontseiluaren eskudantzien artean ez dago diru-laguntzetarako deialdiak onestearena; bai, ordea, enplegu-politikan parte-hartzearena eta arau erregulatuaren adostasun txostena egitearena. Adostasun txosten hori exijitzen da lege- edo erregelamendu-arauak onesteko. Ez da exijitzen, aldiz, diru-laguntzetarako deialdiak egiteko.

Halaber, Batzorde Iraunkorraren eskudantzetako bat da adostasuna ematea entitate laguntzaileekin egindako lankidetzak-hitzarmenei buruz. Lankidetzak-hitzarmenak diru-laguntzak emateko tresna bat dira. Haien bitartez, aldeak diru-laguntza arautzen duten terminoak adosten dituzte.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak tresna hori erabiltzen du diru-laguntzak zuzenean emateko, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 17.a) artikuluan ezarritakoaren arabera. Hartara, hitzarmenak, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean onetsitako zenbatekoaren arabera, kontusailean ageri den onuradunarekin izenpetzen dira, lege horretan zehaztutako neurriak garatze aldera. Horrenbestez, Batzorde Iraunkorrak ez du erabakitzen nork jaso behar duen diru-laguntza bat, ez eta haren zenbatekoa ere. Adostasuna erakusten du entitate laguntzaileek garatutako programak direla-eta, zeinak lanki-

detza-hitzarmenaren bitartez araututa baitaude. Adostasun horren xedea da Batzordeko kideek berrets dezatela Nafarroako Enplegu Zerbitzuak finantzatzen dituen programak eta neurriak bat datozela aurrez onetsitako enplegu politika aktiboen plangintzarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko ekainaren 17an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Iktus Unitatearen funtzionamenduari, tratamenduei eta ondorengo jarraipenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Iktus Unitatearen funtzionamenduari, tratamenduei eta ondorengo jarraipenari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratzen 2014ko ekainaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Iktus Unitatearen funtzionamenduari, tratamenduari eta ondorengo jarraipenari buruz eta unitate horrek Eco-Doppler teknologiaren arloan dauzkan beharizanez buruz (8-14-PES-00121). Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak informazio hau eman dio:

Nafarroako Ospitalegunea erreferentziako zentro bat da gure erkidegorako, eta patologia baskularren arloko zentro tertziarioa izateko baldintzak betetzen ditu. Iktuserako zentrotzat definitzen dira honako baldintzak betetzen dituztenak: behar diren profesional adituak, azpiegiturak eta programak izatea zainketa mediko eta kirurgiko intentsiboak, proba espezializatuak edo esku-hartze tratamenduak behar dituzten iktuseko gaixoei

diagnosi eta tratamendu egokia emateko; osasun-eremuko beste ospitale batzuentzat erreferentziako zentro gisa jardutea; eta osasunaren arloko profesionalentzako prestakuntza-iturria izatea.

Nafarroako Ospitaleguneako Neurologia Zerbitzuan, zerbitzu-zorroan jasotako azterlan neurosofologikoak honako tresnekin egiten dira gaur egun:

- Bi Eco-Doppler aparatu eramangarri, iktusaren fase akutuan eta larrialdietan erabiltzen direnak. Horietako bat, gainera, Garuneko Patologia Baskularreko berariazko kontsultan erabiltzen da.

- Gama altuko Eco-Doppler aparatu bat, Kirurgia Baskularreko Zerbitzuarekin partekatua.

2014rako Inbertsio Planean, Neurologia Zerbitzuak eskatu zuen Eco-Doppler aparatu berri bat erosteko, teknologia aurreratuagoarekin eta zerbitzu horrek esklusiboki erabiltzeko.

Ekipamendu medikoaren erosketetan lehentasunak ezarri behar direnez, osasun-laguntzaren beharizanak eta aurrekontuan dagoen dirua uztartuz, ezin izan da eskari hori bete oraingo ekitaldian, eta 2015eko ekitaldirako hartuko da kontuan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko ekainaren 18an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, urte honetarako Doikuntza Plan bat igortzeari buruz Espainiako Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak igorritako komunikazioari Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, urte honetarako Doikuntza Plan bat igortzeari buruz Espainiako Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioak igorritako komunikazioari Nafarroako Gobernuak emandako erantzunari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko maiatzaren 30eko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Doikuntza Planari buruz (PES-00114). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Joan den maiatzaren 12an Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren komunikazio ofizial bat jaso genuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari eskatzen baitzitzaien ekainaren

5a baino lehen plan ekonomiko-finantzario bat igortzeko. Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, bilera bat eskatu zuen Ministerioarekin, eskari horrekin ados ez zegoela erakusteko. Izan ere, oraindik ere desadostasun bat badago 2013ko defizit-helburua betetzeari dagokionez. Administrazio Publikoetako estatu idazkariarekin joan den ekainaren 3an izandako bileran Nafarroaren eskariari erantzun zitzaion, eta erabaki zen plana ez zela eginen gaia Koordinazio Batzordean aztertu arte, Foru Erkidegoaren hitzarmen berekiaren arabideak ezartzen duen bezala.

Bestalde, Ministerioak igorritako idazkiaren kopia eransten dizut. Aipatutako plana eskatzeko idazkia da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko ekainaren 19an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, baliabide publikoak egiaz behar dituzten pertsonengana eta familia-unitateengana heltzen direla bermatzeko helburua betetzearren Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko hartuko dituen neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egindako galderaren erantzuna, baliabide publikoak egiaz behar dituzten pertsonengana eta familia-unitateengana heltzen direla bermatzeko helburua betetzearren Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko har-

tuko dituen neurriei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 5eko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak idatziz erantzuteko galdera egin du gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuak hartuko dituen neurriei buruz, horien bidez bermatze aldera baliabide publikoak egiaz behar dituzten pertsonengana eta familia-unitateengana heltzen direla (8-14/PES-117). Hau erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

- Departamentuak zer neurri zehatz hartuko ditu helburu hori betetzeko eta baliabideak haien beharrea dauden pertsona guztiengana heltzeko?

Neurri zehatzak Nafarroako Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko planean jasotakoak dira. Plan hori jada Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordean aurkeztu zen.

- Nafarroan zenbat pertsona edo familia-unitate daude Gizarteratze-errenta arautzen duen Legearen azken aldaketa onetsi ostean gizarteratze-errenta lortu ezin dutenak? Zenbat diru kalkulatzen da kostatuko lukeela pertsona edo familia unitate horiek gizarteratze-errenta jasotzeak?

Funtsean, kanpo geratzen dira egoera irregularraren dauden eta eroldan bi urteko antzinatasuna duten pertsonak, honakoak kenduta: legearen erreforman jasotako kasuak eta 30 hilabetera iritsi diren unitateak, horietan salbuespen-arrazoirik ez badago.

Ezin dugu zehatz ezagutu zenbat familia dauden errenta eskuratzerik ez dutenak, eta ezin da gutxi gorabeherako zenbatespenik egin, zeren eta zenbait datu bai baitaude, egoera irregularra bezalakoak, ofizialki jakiterik ez daudenak.

- Adingabeak derrigorrezko irakaskuntzan eskolatuta ez dauzkaten familia unitateei gizarteratze-errenta kenduko al zaie? Nola egingen da hori? Zer plan edo koordinazio dago gizarte zerbitzuen, ikastetxeen eta ukitutako entitateen artean?

- Zer plan dauka, aztertze zergatik dauden eskolatu gabeko adingabeak? Zer neurri hartuko

ditu halakorik gerta ez dadin eta adingabe horiek eskolatu daitezten?

- Zenbat adingaberi buruz ari gara?

Puntu horiek guztiak Absentismo kasuetan jarduteko Protokoloan zehazten dira. Protokolo hori Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Absentismoaren eta Eskola-uztearen aurkako Batzordeak landu du.

Horren helburu zehatzen artean dago erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazio-prozedurak ezartzea eskolako absentismoaren eta eskola-uztearen kasu goiztiarrei aurrea hartzeko, haiek antzemateko edo haietan esku hartzeko jarduketan.

Prebentzioan oinarrituta dago, absentismorako antidoto onena delakoan, eta premisa gisa hartuta zentrorra joatea beharrezko baldintza bat dela baina ez nahikoa. Gizarteratzeak, izan ere, hiru zutabe dauzka berme gisa: bertaratzea, parte-hartzea eta ikastea.

Familiari laguntzeko jarduketak eta familia onuradunaren lankidetzaren ere jasotzen ditu.

Protokolo honen kontzepzioak, lanketak eta funtzionamenduak honako printzipio hauek ditu arau gisa: erantzukizun partekatua, sarean lan egitea, elkarren osagarritasuna eta berehalakotasuna, betiere esku-hartze kontingentearekin, erabakitze epeak laburtuz eta lana halako moduz egingez non konponbideak garaiz helduko diren.

Protokolo horretan koordinazioa eta prozedura ageri dira. Azkenik, gizarteratze-errenta kenduko da, pizgarri moduan eta bilatu nahi den helburua lortzeko bide gisa, baldin eta ez-betetze sistemati-ko bat izan eta eskolaratzea lortzen ez bada. Izan ere helburu hori da Nafarroan nahitaezko eskolaratzearen adinean dauden adingabe guztiak egiazki eskolaratzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko ekainaren 24an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak amiantoaren eraginpean egondako langileen osasuna zaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egindako galderaren erantzuna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak amiantoaren eraginpean egondako langileen osasuna zaintzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak idatziz erantzuteko galdera egin du amiantoaren eraginpean lan egin duten pertsonen osasunaren zaintzari buruz (8-14/PES-00124). Hona hemen Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak nola bermatzen du amiantoaren eraginpean egondako langile erretirodunen nahiz jardunean egonik amiantoaren eraginpean daudenen osasuna zaintzea O-NOZen bidez?

Zertan da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzak hitzarmena, lanean amiantoa erabiltzetik heldu diren patologiek ukitutako langileei dagokienez baterako jarduketak egiteari buruzkoa?

1. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Laneko Epidemiologia, Ikerketa eta Osasun Ebaluaziorako Atala da Nafarroan amiantoaren eraginpean dauden eta egon diren langileen erregistroaz arduratzen dena. Atal horretatik koordinatzen dira amiantoaren eraginpean dauden edo egon diren langile guztien zaintza-jarduketak, eta jarduketa horiei jarraipena ematen zaie. Gaur egun, erregistro horrek amiantoaren eraginpean dauden edo egin diren 2.609 langileen datuak dauzka. Amiantoaren erabilera 2002an debekatu zen, zeren eta konprobatu baitzen lotuta dagoela zenbait tumore eta arnasketa aparatuko beste patologia batzuekin.

Urtero, atal horrek informazioa eskatzen du beren lan-bizitzan amiantoaren eraginpean egon diren eta oraindik ere kasuko enpresan lanean jarraitzen duten langileen osasun-jarraipenari buruz.

Horretarako, eskari bat igortzen zaie Ataleko prebentzio zerbitzuen direktorioan ageri diren kanpoko zein barruko prebentzio zerbitzu guztiei, behar den dokumentazioa eskatzeko, 396/2006 Errege Dekretua betetze aldera. Izan ere, errege dekretu horrek, 16. eta 18. artikuluetan, osasunaren zaintzari eta fitxak osasun agintariei igortzeari dagokionez, honakoa esaten du: "Atal horretara bidaliko da amiantoaren eraginpean dauden langile guztien osasun zaintzaren fitxa –296/2006 Errege Dekretuko V. eranskina–, aurreko urtean egindako osasun-azterketei dagokiena.

Azken eskaria aurtengo otsailaren 25ean bidali zen. Bertan, 2013ko datuak eskatzen ziren.

Bestalde, O-NOZi urtero jakinarazten zaio bai amiantoaren eraginpean egon ziren enpresari zerbitzua emateari uzten dioten langileen zerrenda, bai erretiroa hartzen dutenen zerrenda, zeren eta kasu horien jarraipena osasun zerbitzu publikoei baitagokie.

2.- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Departamentuaren arteko lankidetzak hitzarmena –lanean amiantoa erabiltzetik heldu diren patologiek ukitutako langileei dagokienez baterako jarduketak egiteari buruzkoa– 2013ko azaroan sinatu zen. Gero, martxoaren 10ean, lantaldea eratu zen, hitzarmen horrek gomendatzen duen bezala. Lantaldea Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Departamentuko adituek eta Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko adituek osatzen dute, kide kopuru berarekin, eta haren bitartez Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren eta amiantoaren eraginpean dauden langileen jarraipen-jarduketak koordinatzen dira eta horri buruzko informazioa trukatzeko da. Bileran, amiantoarekin lotutako patologia baten lehenengo bi kasuak aztertu ziren. Lantaldea maiztasun jakin batez bilduko da behar diren kasuak baloratzeko.

Azken 10 urteotan, zenbat langileri egin zaio erretiroa hartu osteko osasun-zaintza? Eta lehenago amiantoaren eraginpean egon eta orain jardunean dagoen zenbati?

1999tik Lan Osasunetik 1.747 kasu deribatu dira Nafarroako Ospitaleguneko Neumologia Zerbitzura.


Deribatutako guztiei lehenengo azterketa bat egin zaie, eta patologiaren bat agertu den kasuetan Nafarroako Ospitaleguneko Neumologia Zerbitzuan beste hitzordu bat eman zaie eta jarraipena eman zaie.

Neumologia Zerbitzuak baloratu dituen amiantoaren eraginpeko gaixoen jarraipena, alteraziorik aurkitu ez denean, oinarrizko osasun laguntzan eginen da. Horri begira, lanean gari gara oinarriz-

ko osasun laguntzaren, Nafarroako Ospitalegunearen eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren arteko jarraipen protokolo bat egiteko.

Joan den azaroan, amiantoaren eraginpeko langileen zaintzarako protokolo berri bat aztertu zen, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak argitaratua. Osasunaren Lurralde arteko Kontseiluko Osasun Publikoarako Batzordeak onetsi zuen protokolo hori, eta bertan ebidentzia zientifikoaren arabera jarraitu beharrekoak azaltzen dira.

NOPLOIK O-NOZi lanaren ondorengo azterketarako deribatutako langileen kopurua. 1999-2012. urteak



Ukitutako zenbat pertsonari onartu zaio lanbide-gaixotasun gisa?

42 dira Nafarroan 2007-2014 aldian (2014ko maiatzera arte) erregistratu diren eta amiantoaren

eraginpean egotearekin lotuta dauden laneko gaixotasunen kasuak. 2007an erabiltzen hasi zen CEPROSSen (Gizarte Segurantzari Laneko Gaixotasunak Komunikatzea) bidez ezagutzen den datua da hori.

LANEKO GAIXOTASUN MULTZOA		SEXUA	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
4C01	Asbestosia.	Gizonezkoak	1		3	3	4	3	11	
4C02	Pleurako eta perikardioko afekzio fibrosi-eragileak, amasketaren edo bihotzaren murrizketaren bidez gauzatzen direnak, amiantoaren eraginez.	Gizonezkoak		1		1	4	4	1	1
6A01	Bronkioaren eta birikaren neoplasia gaiztoa	Gizonezkoak		2						
6A03	Pleurako mesotelioma.	Gizonezkoak	1					1		
6A04	Peritoneoko mesotelioma.	Gizonezkoak			1					
GUZTIRA			2	3	4	4	8	8	12	1

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean 2014ko ekainaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, La Caixa Fundazioak eta Nafarroako Gobernuak iragan maiatzaren 27an Tuteran sinatutako lankidetzaren hitzarmenak dakartzan aldaketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, La Caixa Fundazioak eta Nafarroako Gobernuak iragan maiatzaren 27an Tuteran sinatutako lankidetzaren hitzarmenak dakartzan aldaketei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 5eko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako

Gobernuaren eta La Caixa Fundazioaren arteko 2013ko eta 2014ko lankidetzaren hitzarmenei buruz (8-14/PES-00118). Galdera hori 2014ko maiatzaren 28ko 1629 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Erantzun gisa, Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguaren kontseilariak hitzarmen horiek igortzen dizkio.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko ekainaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguaren kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako hitzarmenak eskuragarri dituzte foru parlamentariak, Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

Galdera, AHTaren obrak finantzatzeko hitzarmenaren ondorioz Estatuak Nafarroarekin daukan zorra geroratzeko xedez Sustapen Ministerioarekin sinatutako itunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, AHTaren obrak finantzatzeko hitzarmenaren ondorioz Estatuak Nafarroarekin daukan zorra geroratzeko xedez Sustapen Ministerioarekin sinatutako itunari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak informazio eskari bat egin du, non esaten baitu Nafarroako Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina andreak, Foru Araubideko Batzordeak ekainaren 4an egin zuen bileran, onartu zuela Nafarroako Gobernuak itun bat sinatu zuela Sustapen Ministerioarekin, AHTaren obrak finantzatzeko aldera 2010ean sinatutako hitzarmena dela-eta Estatuak Nafarroarekin daukan zorra geroratzeko xedez (PEI 218 eta PES 122). Hona Sustapen Departamentuaren erantzuna:

1. Ez daukagu inolaz ere jasota Nafarroako Gobernuak lehendakariak inoiz ere esan duenik edo aitortu duenik Nafarroako Gobernuak itun bat sinatu zuela Sustapen Ministerioarekin, AHTaren obrak finantzatzeko aldera 2010ean sinatutako hitzarmena dela-eta Estatuak Nafarroarekin daukan zorra geroratzeko xedez.

Adifekiko desadostasunak azaldu ondoren, besteak beste kredituen itzulketa egitea eragotzi zutenak, honakoa esan zuen lehendakariak: Arazoari konponbidea emateko, Sustapen Ministerioarekin itundu zen 2013tik zor zegoen kopurua 2014ra aldatzea. Horretarako, zuzenketa bat aurkeztu behar izan zen Estatuko 2014ko Aurrekontu Orokorren izapidetzean... (2013ko ekainaren 4ko agerraldiko 10:40 minutua).

Eledunei emandako erantzunean, lehendakariak berriz ere gai hori bidenabar aipatu zuen, eta orduan Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko "akordioaz" hitz egin zuen,

hitzarmenak bideratzen duenaren barruan eta atzeratutako kopuruak itzultzeko zuzenketa bitartez. (agerraldiko 50. minutua).

Hau da, ez da horri buruz berariazko itunik sinatzera iritsi; izan ere, lehendakariak Parlamentuan agertu zuen bezala, ADIFekin irizpide-desadostasun bat gertatu zen hitzarmenerako aurreikusita zeuden urteko kopuruak ordaintzeari buruz. ADIFek bilatzen zuen ordainketei "proportzionaltasun" irizpide bat aplikatzea, hitzarmenean obrak birprogramatzeko kasurako aurreikusitakoan oinarrituta. Nafarroako ordezkariak ez zuen asmo hori onartu. Hala eta guztiz ere, desadostasun horiek, ADIFen kreditu gutxi egoteak eta igorritako ziurtagirien onespina geroratzeko eragotzi zuten kredituen itzulketa izapidetzea.

Arazoari konponbidea emateko, Sustapen Ministerioarekin hitzez itundu zen 2013ko zorra 2014ra aldatzea. Horretarako, zuzenketa bat aurkeztu behar izan zen Estatuko 2014ko Aurrekontu Orokorren izapidetzean. Zuzenketa horren bidez 21,75 milioi euroko kopuru gehigarri bat sartu zen hasiera batean "2008ko proiektua, Zaragoza-Iruña Abiadura Handiko Linea (Castejón-Iruña)" kontusailan ezarritako 13,9 milioi euroko kopuruaren gainetik. Horrenbestez, 2014rako aurreikusitakoa 35,65 milioi euroko kopurura iristen da, zeina baita, hain zuzen ere, hitzarmenean ezarritakoa.

Azkenik, 2013tik egiteko zeuden ziurtagiriak onesterakoan izan den geroratzeko dela eta, ADIFI lehenengo eskari bat igorri zaio, 23,54 milioi eurokoa, onetsitako gastuari dagokiona. 2013ko ziurtagirien izapidetzea eta onespina itxi bezain laster, eskari osagarri bat igorriko da, 2014an kobratzeko dagoen gainerako kopuruari -12,11 milioi euro- dagokiona.

Laburbilduz, geroratzeko bat gertatu da 2013an aurreikusitako ordainketan, 10 milioi eurokoa, eta 2014an berreskuratuko da hori, Estatuko 2014ko Aurrekontu Orokorretan bi urteei dagokien itzulketa-kopurua aurreikusi izanari esker. Momentuz, 23,54 milioi euro itzultzeko eskatu da, eta urtean zehar gainerakoa -12,11 milioi euro- eskatuko da.

2. Itun hori ez da sinatu, eta ez da horri buruzko gobernu-erabakirik hartu.

3. Egiazki, hitzarmenean 2013rako aurreikusita zeuden kopuruak aurtun itzultzeak berarekin eka-

rriko du iritsitako akordiotik eratorri diren interesek gora egitea, lehendakariak berak adierazi zuen bezala. Bere garaian erreklamatu dugu hori.

2013an aurreikusitako 10 milioi euroko itzulketa 2014ra geroratzeak finantza-kostu bat izan dezake: kopuru horren adinako zor publikoaren urtebeteko batez besteko kostuak sortutako interesei dagokien kostua, hain zuzen. Zor publikoaren

2013ko batez besteko kostua % 4,6 izan zen, eta horrek, 10 milioi euroko kopuruari aplikatuta, 400.000 euro baino gehiagoko finantza-kostua ekar dezake.

4. Lehen adierazi den bezala, ez da itunik sinatu, eta, horrenbestez ezin da haren kopiarik igorri.

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Lasaitasuna eta El Mirador de Yesa urbanizazioetako etxebizitzek bertan bizitzeko baldintzak berreskuratu ahal izanen dituzten zehazte aldera Sustapen Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Lasaitasuna eta El Mirador de Yesa urbanizazioetako etxebizitzek bertan bizitzeko baldintzak berreskuratu ahal izanen dituzten zehazte aldera Sustapen Departamentuak egindako jarduketei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Lasaitasuna eta Mirador de Yesa urbanizazioetako etxebizitzak direla-eta egin diren jarduketei buruz (PES-00120). Hona Sustapeneko kontseilariaren erantzuna.

Galderan aipatzen direnak bizigarritasun-zedulak dituzten etxebizitza libreko bi sustapen dira. Galderaren azalpenean, izan ere, aipatzen da Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin irekitako prozedura bat, zeinaren bidez honakoak egin behar baitira: arrazoiak zehaztu, eraginak aztertu –besteak beste, etxebizitzetan– eta behar diren neurri zuzentzaileak proposatu, kasuko erantzukizunak eskatzeaz gainera, halakorik balego.

Behin bidezko azterlanak amaituta –horien artean daude etxebizitzetako eta haien bizigarritasun-baldintzen afekzioei buruzkoak– eta, horretaz gainera, haietarako lehengoratzeko neurriak hartuta eta haien emaitzak dagokionari helarazita, etxebizitzaren arloan eskumenak dauzkan departamentuak esku hartu ahalko du araudiaren arabera behar adinako bizigarritasun baldintzak betetzen ez diren kasuetan, eta bizigarritasun-zedulen indarra aurrez galdu dela deklaratu du.

Iruñean, 2014ko ekainaren 27an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Estatuari egindako ekarpen gisa martxoaren 31n 138.958.637,50 euro ordainduak izateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Estatuari egindako ekarpen gisa martxoaren 31n 138.958.637,50 euro ordainduak izateari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroak Estatuari egindako ekarpen gisa 138.958.637,50

euro ordaindu izanari buruz (8-14/PES-00125). Galdera hori 2014ko ekainaren 6ko 1740 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguak kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Hitzarmen Ekonomikoko 59. artikuluko 3. idatziztatian aurreikusitakoaren arabera, 2014ko behin-behineko ekarpena kalkulatu da 2010eko oinarri-urtearen ekarpen likidoari aplikatuz 2010-2014 adirako kalkulatuak behin-behineko eguneratze-adierazlea. Hartara, Nafarroak kalkulatu du zein den behin-behineko eguneratze-adierazlea, Estatuaren diru-sarrera aurreikuspenen arabera –aurreikuspen horiek 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasota daude–, bai eta dagokion behin-behineko ekarpena, ere, hurrengo tauletan zehazten den bezala.

(euroak, milakotan)

ITUNDUTAKO ZERGAK	2010eko AURREKONTUA	2014KO AURREKONTUA	BEHIN-BEHINEKO ADIERAZLEA, 2010-2014
	HOMOGENEOA		
Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	70.026.000,00	38.939.327,06	
Sozietateen gaineko zerga	20.184.000,00	20.184.000,00	
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	2.398.000,00	2.398.000,00	
I. KAPITULUA, GUZTIRA	92.608.000,00	61.521.327,06	1,06129863
Balio erantsiaren gaineko zerga	36.931.000,00	17.169.445,52	
Alkoholaren, edari deribatuen gaineko zerga	805.000,00	334.160,31	
Tarteko zergak	18.000,00	7.294,08	
Garagardoaren gaineko zerga berezia	263.000,00	103.789,44	
Tabako gaien gaineko zerga berezia	8.489.000,00	3.362.299,76	
Hidrokarburoen gaineko zerga berezia	11.249.094,35	4.676.792,97	
Aseguruetako primak	1.376.000,00	1.376.000,00	
II. KAPITULUA, GUZTIRA	59.131.094,35	27.029.782,08	1,33499781
OROKORREAN, GUZTIRA	151.739.094,35	88.551.109,13	1,14484393

	PROVISIONAL 2014 NAVARRA
2010eko oinarri urtearen behin betiko ekarpena	485.511,20
+ Oinarri urtean poliziaren arloa dela eta zenbatetsitako kopurua	62.645,00
Oinarri urtearen ekarpena	548.156,20
x 2010-2014 aldirako eguneratze adierazlea	1,14484393
2013rako eguneratutako ekarpena, poliziaren arlorik gabe	627.553,30
Poliziaren arloaren balioespena, 2014	-71.718,75
EKARPEN EGUNERATUA, poliziaren arloa kenduta	555.834,55
- Mendetasunaren arloa dela-eta egindako deskontuak (2011-02-16ko zortzigarren erabakia)	0,00
2014ko EKARPENA	555.834,55

Kalkulu horietatik eratortzen da hiruhilekorako 138.958.637,50 euroko betebeharrak daudela.

Hala eta guztiz ere, une honetara arte desadostasunak daude bi administrazioen artean behin-behineko eguneratze-adierazlea zehazteko orduan, zenbait hidrokarburoren gaineko txikizkako salmentaren gaineko antzinako zerga hidrokarburoren gaineko zerga berrian sartzearen ondorioz. Hori dela eta, ezin izan da 2014ko behin-behineko ekarpenaren zenbatekoa adostu. Horrenbestez, Hitzarmen Ekonomikoko 63. artikuluko 2. idatzatiari jarraituz, 2014. urterako behin-behineko ekarpenaren zenbatekoa erabakitzen ez den bitartean, Estatuari adostutako behin-behineko azken

kopurua ordainduko zaio, kasu honetan 2012. urteari dagokiona, eta hortik heldu da martxoko ordainketa 130.171.660 eurokoa izatea. Ordainketa hori "konturako" ordainketa bat da, eta gerta daitezkeen aldean likidazioa kasuko ekarpena ezagutu bezain laster egin beharko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko uztailaren 4an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, ikastetxeetan pedikulosiaren ondoriozko infekzioei aurrea hartzeko eta haiek kontrolatu eta saihesteko hartu diren eta hartu nahi diren neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, ikastetxeetan pedikulosiaren ondoriozko infekzioei aurrea hartzeko eta haiek kontrolatu eta saihesteko hartu diren eta hartu nahi diren neurriei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 20ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, non honakoa eskatzen baitu: "2013-2014 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan pedikulosiaren ondoriozko infekzioei aurrea hartzeko eta haiek kontrolatu eta saiheste aldera hartutako neurrien xehetasunak, eta 2014-2015 ikasturtean eginen diren jarduketan aurreikuspena" (8-14-PES-000128). Hona Nafarroako Gobernuo Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Departamentuak badaki Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuko Osasun Publikoaren Institutuko Epidemiologiaren, Aurreneurrien eta Osasun Sustapenaren Zerbitzuak buru-zorriei buruzko

diptiko bat argitaratzen duela, gaztelaniaz eta euskaraz, eta balizko ukituen eskura jartzen duela. Bertan azaltzen da zer diren intsektu bizkarroi horiek, nola ezagut ditzakegun, zer egin dezakegun haiei aurrea hartzeko, nola transmititzen diren eta nola ken daitezkeen.

Eskatu dituzten ikastetxeei banatu zaizkie liburuxka horiek, eta kasu partikular batzuk ere artatu izan dira. Osasun-etxeetako pediatrek (eta, jakina den bezala, farmazia-bulego askok) berriazko aholkuak ematen dizkiete beren gaixo edo bezeroei.

Datorren ikasturterako, aurreko guztia ezertan kendu gabe, gure Departamentuak aurreikusita dauka pedikulosiari aurrea hartzeko eta hura kontrolatu eta deuseztatzeko jarduketan zabalkunde gehigarria egitea, Departamentuko IKTen eta sare sozialen bitartez, hezkuntza-erkidegoan pedikulosiaren inguruan hartu beharreko neurrien ezagutza zabalagoa errazteko.

Aipatutako liburuxka eranskin gisa gehitu dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko ekainaren 14an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak Nafarroako Gobernuari egindako erreklamazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak Nafarroako Gobernuari egindako erreklamazioari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 20ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatzizko informazioa eskatu du familia laguntzaren kotizazioa dela-eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin dagoen gatazkari buruz (PES 127/2014). Hau da Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak informatu diona:

Nafarroako Foru Komunitateak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak gatazka bat daukate familia laguntzaren ordainsari-kontzeptuaren kotizazioa dela eta. Horren arrazoia da araudi indardunaren interpretazio juridiko desberdina, zeren eta, gure iritziz, Diruzaintzak gai honetan izan duen jokabideak ez baitu babes juridikorik ez edukian, zeren eta ez baita aldatu aplikatzekoa den araudia, ez erabilitako moldean, atzeraeraginak, errekarquak eta zehapenak inongo justifikaziorik gabe ezarrit.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuaren iritziz, ez da onargarria Diruzaintzak bere irizpidea hogeitaz pasa eta ondoren aldatzea guztiz bere aldetik, Foru Komunitateko Administrazioari, interesduna den aldetik, entzunaldiaren izapidea eman gabe ere, kotizatzeke betebeharra ezarrit eta, gainera, betebeharrak horri atzeraeragina emanaz. Horrekin, printzipio oinarrikoenak ere urratzen dira: fede ona, bidezko konfiantza, segurtasun juridikoa, botere publikoen arbitrariotasunaren debekua, eskubideak murrizten dituzten xedepenek atzeraeraginik ezin edukitzea, aldeko egintzak ofizioz berraztertzekeko prozedurak edo, gutxienez ere, prozedura administratiboa izapidetzea interesdunentzako emanez, entzunak izateko aukera izan dezaten beren interes legitimoetan eragina duten erabakiak, kaltegarriak ere izan daitezkeenak, hartu baino lehen.

Horrenbestez, araudi indardunaren babes duela uste duenez, Nafarroako Gobernuak erabaki du Nafarroako Auzitegi Nagusian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren jokabidearen aurka, Foru Komunitateko Administrazioaren interesak eta Nafarroako Foru Ogasunaren kredituak aldezteko.

Hori guztia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeke.

Iruñean, 2014ko uztailaren 18an

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2012ko apirilean emandako epaia betetzeari buruzkoa, zenbait errepede tarte konpontzeari dagokionez.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2012ko apirilean emandako epaia betetzeari buruzkoa, zenbait errepede tarte konpontzeari dagokionez, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 20ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko uztailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak informazioa eskatu du errepede-tarte batzuen konponketa dela eta Nafarroako Auzitegi Nagusiak 2012ko apirilean hartutako erabakia betetzeari buruz (PES 129). Hona Sustapen Departamentuak ematen dion informazioa:

1. Herri Lanen zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 1125/2006 Ebazpenaren bitartez, baimena eman zitzaion Tragsari 12 eta 15 Tm-tik gorako pisua duten ibilgailuak NA-5100, Garinoain-Leotz, N-5161, Amatriain, eta NA-5110, Puiu-Lergako gaina, errepedeetatik ibiltzeko, "Leozko lurzati berrantolamenduaren esparruko bide eta hustubideetako sareko obretarako proiektuak" –AOP 2006/256– irauten duen bitartean.

2. Ebazpen horretan, zenbait baldintza ezarzen dira horretarako; besteak beste, behin obrak amaituta, eskaera-egileak errepedeak konpontzeaz arduratu beharko duela, baldin eta ibilgailuak iragatearen ondorioz hondatzen baldin badira.

Bestalde, 60.000 euroko fidantza bat ezarri zen Nafarroako Gobernuaren alde, eta urtebeteko berme-aldia, konponketa lanak jasotzen direnetik kontatzen hasita. Epe hori amaituta, jarritako fidantza itzuliko zen.

3. 2010eko azaroaren 17an, Tragsak fidantza itzultzeko eskatu zuen, eta 2011ko apirilaren 19ko idazki baten bidez, Nafarroako Gobernuak Tragsa premiari zuen ibilgailu astunen joan-etorriak hondatutako errepedeak konpontzeko, eta adierazi

zitzaion konponketa horiek hilabeteko epean egin ez bazituen, Sustapen Departamentuak egin zuela, Tragsak jarritako fidantzaren kargura.

4. 2011ko uztailaren 11n, 1125/2006 Ebazpenaren bidez baimendutako ibilgailuen joan-etorriari buruzko adostasun-akta izenpetu zen, zeren eta jotzen baitzen ukitutako errepedeak konponduta eta baldintza egokietan zeudela.

5. 2012ko maiatzaren 22an, Sustapen Departamentuko Zainketa Zerbitzuan Leozko Udalaren idazki bat jaso zen, eta harekin batera erantsita Landa Garapenaren zuzendari nagusiaren azaroaren 10eko 2011/2009 Ebazpenaren aurkako 559/2010 zk.ko prozedura arruntean Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako 260/2012 epaia –ebazpen horren bitartez, "Leozko lurzati berrantolamenduaren esparruko bide eta hustubideetako sareko obretarako proiektuko" obrak entregatu eta haien jabaria eskualdatu zen eta eskatu zen NA-5100, Garinoain-Leoz, N-5161, Amatriain, eta NA-5110, Puiu-Lergako gaina, errepedeak konpontzeko, bideetako ingeniari Francisco de Asís Ramírez Chascok emandako peritu-txostenari jarraituz–.

Txosten horretan, bi errepede sartu ziren, zeinetan ez baitzen baimenik eman 12 eta 16 Tm-tik gorako ibilgailuak iragateko, eta, gainera, kontua da Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaiak oinarri zuen peritu-lana egin zela arestian aipatutako 2011ko uztailaren 11ko adostasun-aktan ageri diren errepedeak konpondu baino lehen eta, hain zuzen ere, orduko data duela.

Aipatu beharra dago Sustapen Departamentuak ez zuela parte hartu prozedura horretan, eta ez zuela haren berri izan une horretara arte. Hori dela eta, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari igorri zitzaion Leozko Udalaren idazkia, epaia eta peritu-txostena erantsita.

6. 2014ko apirilaren 14ko idazkiaren bitartez, Leozko Udalak berriz ere jo zuen Sustapen Departamentura, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 260/2012 epaia betetzeari buruzko informazioa eskatuz. Idazki hori Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Idazkaritza Nagusira igorri zen.

7. Departamentu horretako Zainketa Ataletik informatu zen epaian aipatutako errepedeak, bai

2011n konpondu zirenak (NA-5100, NA-5161 eta NA-5110), bai epai judizialak aipatzen dituen beste errepedeak (NA-5154 eta NA-5163), data haietan segurtasun- eta ibilgarritasun-baldintza egokietan zeudela, errepedeen zainketa dela-eta erreferentziatza hartu ohi diren parametroen arabera. Hala-ber, aipatutako errepedeen zainketaren egungo egoerak eskatzekoak diren parametroak betetzen ditu segurtasunaren eta funtzionaltasunaren ikuspuntutik, eta ez da bereziki bereizten Nafarroako beste eremu batzuetako antzeko egoeretatik.

8. Aurrekoa alde batera utzita, aipatutako 260/2012 epaia aintzat hartuz eta kontuan izanda iragan den denborak ere epai horretan aipatutako errepedeetan narriadurak eragin dituela, Departamentuak, ohiko zainketa zerbitzuen bitartez, NA-5100, Garinoain-Leotz, NA-5110, Puiu-Lergako gaina, NA-5154, Uzkieta, eta NA-5163, Santsoain, errepedeak pixkanaka lehengoratze eta konpontze-ari ekinen dio, funtzionaltasun- eta segurtasun-egoera egokian egon daitezten.

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Europar Batasunak 2014-2020 aldirako emandako egiturazko funtsen exekuziorako oinarrizko proposamenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Europar Batasunak 2014-2020 aldirako emandako egiturazko funtsen exekuziorako oinarrizko proposamenari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 20ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko uztailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Europar Batasunaren egitura-funtsak betearazteko oinarrizko proposamenean parte hartzeko prozesuari buruz (8-14/PES-00130). Galdera hori 2014ko ekainaren 12ko 1837 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Parte hartzeko prozesuari dagokionez, aipatu beharra dago prozesu horri buruzko agiri guztiak Nafarroako Gobernuaren webgunean daudela, herritar guztiak parte hartu ahal dezaten eta ekarpenak egin ditzaten. Prozesu publiko bat da, erakunde guztiei irekia. Gainera, webgunean jarritako agiri publiko berak, posta elektronikoki bidez igorri zitzaizkien sindikatuek, Nafarroako Udala eta Kon-

tzejuen Federazioak, Tokiko Ekintza Taldeak, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak eta Politika Ekonomikoaren Zerbitzuak parte hartzen duten core group bati.

Kontsulta-talde horretako partaideak dira Politika Ekonomikoaren Zerbitzua, Genero Berdintasuneko Politiken Zuzendariordetza, Nafarroako Enpresarien Konfederazioa, UGT, CCOO eta Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa, zeren eta Europako Gizarte Funtsaren eta Erregio Garapenerako Europako Funtsaren jarraipen batzordeetan dauden erakundeak baitira.

Gainera, Tokiko Ekintza Taldeak sartu ziren, lurraldea hurbiletik hobeki ezagutzen dutelako, eta FEADERen kudeaketan daukaten eginkizunarengatik.

Jarraitutako prozesuari dagokionez, jakitera ematen da otsailaren 21ean lurraldearen diagnostikoa eta Europako Gizarte Funtsaren aurretiko ebaluazioa –programa operatiboaren prestaketako "lehenengo mugarrira" agiri horiek– igorri zitzaizkiela honakoei: Politika Ekonomikoaren Zerbitzuko zuzendaria, Genero Berdintasunaren Politiketako zuzendariordetza, Nafarroako Enpresarien Konfederazioa, UGT, CCOO, Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa eta Tokiko Ekintza Taldeak (CEDERNA, Eder Partzuergoa, Nafarroako Erdialdea eta Teder).

Bestalde, maiatzaren 21ean lurraldearen diagnostikoa eta FEDERen aurretiko ebaluazioa agente berei igorri zitzaizkien.

Maiatzaren 28an, agiri horiek berak Nafarroako Gobernuaren webgunean jarri ziren, eta parte hartzeko fase bat zabaldu zen erakunde guztientzat eta, oro har, herritarrentzat.

Ekainaren 11n, publikoki informatu zen Programaren oinarriko proposamenari buruz, informazio guztia Gobernuaren webgunean argitaratu zen eta parte-hartze publikorako beste prozesu bat zabaldu zen.

Parte-hartzeari dagokionez, aipa daiteke parte hartzeko gonbitea posta elektronikoko bidez egin zitzaizen erakundeei dagokienez, ekainaren 20an, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuaren (Genero Berdintasuneko Politiken Zuzendariordetza), Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren eta Tokiko Ekintza Taldeen (TEDER, Eder

Partzuergoa eta Nafarroako Erdialdea) ekarpenak jaso direla.

Core groupekoak ez diren erakundeen eskutik jasotako ekarpenei dagokienez, esan beharra dago gaur arte Iruñerriko Mankomunitatearen, Nafarroako Gobernuko Antolaketa eta Modernizazio Zerbitzuaren eta UNICEFen ekarpenak jaso direla.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko uztailaren 18an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, industria berrabiarazteko planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, industria berrabiarazteko planari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 20ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko uztailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (8-14/PES-00123). Galdera hori 2014ko ekainaren 12ko 1822 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Industria berrabiarazteko plan hori gauzatzeko kronogramaren bat egiteari dagokionez.

Lanerako aurreikusi den jokalekuak hiru urteko horizontea dauka: 2015-2017. Jarduera ekonomiko berrabiarazteko lehenengo neurriak eta, zehazkiago, industria jarduera berrabiaraztekoak, 2015ean jarriko dira abian, inbertsioa, I+G, berrikuntza eta nazioartera ateratzea bezalako esparruetarako

jada aurreko urteetan eman izan direnei jarraipena, indarra eta zabalpena emateko laguntza gisa.

Plan horretarako aurrekontua jarri izanari eta aurrekontu horren zenbatekoari dagokienez.

Une hauetan planaren edukari buruz ari gara lanean, neurriak eta ekimenak baloratu. Urteko azken hiruhilekoan planaren balorazio ekonomiko bat edukiko dugu. Hala eta guztiz ere, eta hura lehenetsun bat denez, aurrekontuan zer diru dagoen hartu beharko dugu kontuan.

Beste eragile batzuekin lan egiten ari ote garen edo lan eginen ote dugun, industria berrabiarazteko planaren esparruan.

Beste eragile batzuekin lanean ari gara Elkarriketa Sozialaren Mahaian. 2014ko apirilaren 11ko saioan, mahai horrek erabaki zuen lantalde bat abian jartzea jarduera ekonomiko eta enplegua berrabiarazteko zuzendutako neurriak bultzatze aldera. Horretarako, adostasuna egon zen industria politikari ikuspegi integral batetik ekitearen garrantziari dagokionez (finantzaketarako laguntza, inbertsioak erakartzea, azpiegiturak, energia, teknologia, berrikuntza, giza kapitalaren prestakuntza eta abar). Lantalde horretan honakoek hartzen dute parte: erakunde ekonomiko eta sozialen ordezkariak, Industria, Energia eta Berrikuntzako eta Politika Ekonomiko eta Enpresarietako zuzendari nagusi Iñaki Morcillo eta María Jesús Valdemoros, hurrenez hurren.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko uztailaren 22an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, kronikoen estrategiarako bi milioi euro zer kontzeptutan gastatuko diren jakitekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egingdako galderaren erantzuna, kronikoen estrategiarako bi milioi euro zer kontzeptutan gastatuko diren jakitekoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko ekainaren 27ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko uztailaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak idatziz erantzuteko galdera egin du kronikoen estrategian 2014an egingen den bi milioi euroko gastuari buruz (8-14/PES-00131). Hona hemen Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Honela xehatzen da 2014an zehar kronikoen estrategian egingen den bi milioi euroko gastua:

1. Auto-zainketen programa: 200.000 euro
2. Prestakuntza-programa: 100.000 euro
3. Informazio-sistemak: 1.700.000 euro

Azken atal horri dagokionez eta gaixo kronikoen prozesuei hainbat informazio-sistemetan estaldura emateko, aipatutako kopurua honako hauetara bideratu da:

O-NOZen informazio-sistemen beharrak aztertzea, gaixo kronikoen eta pluripatologikoen arreta bideratzeko.

Oinarrizko osasun laguntzan eta laguntza espezializatuan kronikoen bihotz-gutxiegitasunean, dementzian eta pluripatologiaren arloan egiten

duten zirkuituaren pilotajea hasteko behar direnak aztertzea. 2014ko urria.

Bideragarritasun azterlan bat hastea. Haren eskakizunak berarekin ekarri zuen produktuen 3 bilakaera egitea:

- Atenea Clínico
- Atenea Web
- HCI-AE

Gaixo kronikoentzako arreta-estrategia zabalteko behar diren errekerimendu eta bilakaerei ekitea, 2014ko urrian, honako helburu hauekin:

- Zirkuitu berezi horretan gaixo bat kronikotzat identifikatzeko produktuak zabaltzea (HCI, Irati, Leyre-HIS, Farho).

- Kronikoen zirkuituan sar daitezkeen gaixoen patologia zabaltzea, horretan bihotz-gutxiegitasuna, dementzia eta gaixo pluripatologikoak sartuz.

- Gaixoaren balorazio orokorraren bilakaera, beste balorazio-arlo batzuk sartuz.

- Gaixo kronikoei buruzko datuak kokatzeko erabakia (identifikatzea gaixo bat zirkuitu horretakoa dela eta balorazio orokorra egitea). Gaur egun, tauletan gordetzen da "UsuariosNavarra"ren barruan (Atenea).

- Arlo berriak sartzeko aukera ebaluatzea, non profesionalek informazioa idatziko duten (gaixoaren helburuak eta bilakaera).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko uztailaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

